

## 8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Higía&Noûs enpresatik, gure bezeroen problema eta nekeetaz kezkatzen gara. Beste modu batean esanda, gure zerbitzua arazoek konponketan datza. Eta izenak esaten duen moduan, honek esan nahi du gure bezeroen arazoak konpontzean datzala gure zerbitzu psikologikoak. Ezagutzaren gestioan daude oinarrituta gure zerbitzuak eta etengabeko prestakuntza ezinbestekoa da, horiek kalitatezkoak izateko.

Horretaz gain, bigarren plano batean, sareko jarduera nabarmendu dezakegu, hau da, gure aplikazioa. Sare sozialak ere aipa ditzakegu honetan. Jarduera hauek plataformen gestioa ondo egitea, etengabeku mantenua eta plataforma promozionatzea behar dute, funtzionamendu on bat izateko. Modu honetan, gure bezeroarengana iritsiko gara, harreman on bat izanez.

Arazoen konpokataren sektore batean gaude, eta honetarako ezinbestekoa dugu ziurtasunez jakitea gure psikologoa prestakuntza on bat duela, eta eboluzioa da gure puntu klabea.

Orain kanpoko enpresen esku utz ditzakegun jarduerak identifikatuko ditugu eta zein ez, gure enpresa aurrera eraman ahal izateko.

Beste enpresen esku utz ditzakegun jarduerak balio erantsirik ez duten jarduerak dira; irteeren etxe ruralaren zerbitzua, adibidez. Hauek haien esku utz ditzakegu gure helburua arreta psikologiko hoberena izatea delako. Etxe rurala ez da gure lehentasuna, baizik eta arreta psikologikoa.

Kanpoko enpresen esku utz ezin diren jarduerak babesten ditugunak dira, aktibo garrantzitsuena delako. Kasu honetan irteeren plangintzak eta ekintzak, baina noski, arreta eta kontsulta psikologikoen teknika eta harreman mota da gehien babestu nahi duguna. Hau soilik gure aplikazioa egin dezake, hau da, gure profesionalak. Beraz, egingo ditugun jarduerak dira:

- Psikologia sesioak eman
- Guziok elkarrekin egoteko ekintzak (irteerak, yoga-sesioak, sukaldatzea...)
- Aplikazioaren eta sare-sozialen kudeaketa